



SANTO TOMAS
LIZEOA



KOSTUEN EGITURA

Gure enpresa sortzea ez da merkea izango, diru kantitate handi bat inbertitu beharko dugu honetan. Kostu ezberdin ugari izango ditugu, enpresa eratu aurretik aurreikusi beharreko ditugunak.

Kostu finkoei dagokienez, webgunea sortzearen balioa 400€ ingurukoa dela aurreikusten dugu. Horrez gain, sare sozialetan (Instagramen, Facebooken eta Tiktok-en) iragarkiak jartzeagatik plataforma hauei zerbait ordaindu beharko diegu, guztira, 150€ ordaintzea espero dugu (hala ere, klick-en arabera kostua aldatu egingo da, beraz, kostu aldakorra ere bada hau). Amazoni ere beste zerbait ordaindu beharko diegu gure produktua salmentan jarri eta etxeetara bildaltzeagatik, hilean 200€ inguru izango da hau. Era berean, Roca enpresari ere ordaindu beharko diegu gure produktuak promozionatzeagatik, baina ez diru asko, azken finean, beraien alkatxofak erabiliko baititugu (hilero 50€ ordaintzea aurreikusten dugu). Bestetik, gure langileen soldata hartu behar dugu kontuan; webgunea eta iragarkiak sortu (pertsona bat), eta alkatxofak muntatzeaz arduratzen direnak (4 pertsona). Langile bakoitzak 1800€-ko soldata izango du, beraz, guztira, 9000€ gastatuko dugu langileetan.

Kostu aldakorrei erreparatuz, alkatxofa bakoitza ekoiztearen kostua dugu batik bat. Bluetooth sistema bakoitzak 9€, dutxa alkatxofak 15,99€ eta waterproof bozgorailuak 5€ balioko dutela kontuan hartuta, alkatxofa bakoitza ekoizteagatik 29,99€ inguru gastatuko ditugu. Gainera, banaketa bakoitzagatik 3€ ordainduko dizkiogu SEUR enpresari.

Bestetik, piezak elkartzeko materiala (kola, zela, silicona, gomak...) ere kostu aldakorren barruan sartu daiteke, baina hau ez da ale bakoitzeko neurtuko; izan ere, horrelako materiala produktu bat baino gehiago egiteko erabili daiteke. Adibidez, 2L-ko kola pote batek 14€ inguru balio ditu, baina 200 ale inguru egiteko erabili daiteke.

Hala ere, kontuan hartu behar da hauek hasierako aurreikuspenak direla soilik. Ekoiztako kopurua handitzen doan heinean, gure hornitzaileekin adostasun batera iritsi eta haiek produktuak merkeago saltzea lortu dezakegu. Azken finean, haientzat ere onuragarria baita guretzeko ekoiztea. Horrela, epe luzean kostuak murriztea lortuko dugu.